

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Zer egingo dugu gure produktuak eta zerbitzuak bezeroengana helarazteko?

Honako kanal ezberdinak bereiz ditzakegu:

- **Komunikazio kanalak:** Gure denda, beste dendetan jarritako txartelak, irratiko iragarkiak eta telefono deiak, eta bestetik, web orria eta sare sozialak (Instagram, Facebook eta Twitter).
- **Banaketa kanalak:** Enpresako furgoneta eta mezularitza zerbitzuak
- **Salmenta kanalak:** Posta elektronikoa, web orria, sare sozialak, telefonoa eta denda fisikoa.

Bezeroarekiko harreman-kanalak, eta bost fasez osatuta daude:

- **Pertzepzioa:** Nola ezagutarazten ditugu gure enpresaren produktuak eta zerbitzuak?

Gure enpresa eta enpresako produktuak ezagutzera emateko, publizitatea egingo dugu katalogo baten bitartez, non gure promozioak, lanak, saltzen ditugun produktuak, etab... erakutsiko ditugun.

Guzti hauek gure denda, web orrian, sare sozialetan (Instagram, Facebook eta Twitter), baita news letter-ean ere ikusgai ditugu.

- **Ebaluazioa:** Nola laguntzen diegu bezeroei gure balio-proposamena ebaluatzen?

Web orrian igota produktuen publikazio bakoitzean, aukera dago iruzkin ezberdinak jartzeko.

- **Erosketa:** Nola eros ditzakete bezeroek gure produktuak eta zerbitzuak?

Posta elektronikoz egin daitezke eskariak. Hortaz aparte, dendara etorritz, web orrian eskariak eginez, baita telefonoz hots eginez.

- **Ematea:** Nola emango diegu bezeroei gure balio-proposamena?

Ekitaldiaren egunean emango duten opariak bikoteei lehenago eman datzaizkiogu edo aukera dago guk eramateko. Ekitaldia prestatzeko behar ditugun, tximeletak, ponpak eta bestelakoak guk eramaten ditugu.

- **Salmenta ondorengoa:** Zer zerbitzu eskaintzen ditugu saldu ondoren?

Argazkilariak ateratako argazki bilduma paperean edo digitala eta bideoa ematen dizkiegu.

